

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal arautegiari

Udalbatzak, 2025eko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal arautegiari.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek egoki deritzeten erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabakia behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada aipatutako epean. Erreklamazioen bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoa betez.

Urizaharra, 2025eko irailaren 8a

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ